

# OSATEKen

## Euskararen Erabilera

### Normalizatzeko II. Plana

(2023-2027)



**AURKIBIDEA**

1- Aurkezpena	3
2- Euskara normalizatzeko prozesua OSATEKen	4
3- OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: bisioa, oinarriak helburu orokorrak, aplikazio-eremua iraupena eta kudeaketa-planak, baliabideak, kudeaketa-egiturak zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa	6
4- OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: egitura orokorra (ardatzak, arloak, eremuak eta helburu estrategikoak)	10
5- OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: adierazleak eta 2024-2025erako ekintzak	12
6- 2024-2025erako ekintzak: arduradunak eta kronograma	27
7-I. Eranskina: HPSren txostena	29
8-II. Eranskina: Osatek-eko Administrazio Kontseiluaren akordioa, lanpostu jakin batzuei derrigortasun-data berriak esleitzen dizkiena, lanpostu horien izaeraren, kokapen geografikoaren, euskara-mailaren eta antzintasunaren arabera	32

# 1-Aurkezpena

---

**JOSU XABIER LLANO  
HERNAIZ**

OSATEKeko zuzendari  
kudeatzailea

Pozteko modukoa da niretzat OSATEKen 2. Euskara Plana aurkeztea, 2023-2027 aldiari dagokiona. Bertan, lortu beharreko helburuak jasotzen dira, baita datozen 4 urteetan egin nahi ditugun ekintza nagusiak ere. Plan orekatua eta asmo handikoa da, Eusko Jaurlaritzan planteatzen diren jarraibideekin bat datorrena.

Dakizuenez, 1992. urtean sortu zenetik, OSATEKek lanean dihardu pertsona guztiei irudiaren bidezko diagnostikoan kalitatezko zerbitzua eskaintzeko asmoz. Pertsonak dira gure lanaren ardatz nagusia, eta herritar askoren bizitzan euskarak leku garrantzitsua hartzen duenez, haren erabilera normalizatzea oinarritzko erronka da gizartearekin konprometituta dagoen eta etengabeko hobekuntza bilatzen duen gure erakundean.

2018an OSATEKen lehen Euskara Plana martxan jarri genuenetik, gero eta zentro gehiagotan indartzen ari da euskararen presentzia eta erabilera, progresiboki eta era planifikatuan. Horregatik, lehen plan hura garatu ostean, euskarak gero eta presentzia eta hedadura handiago du OSATEKen eremu askotan.

Aurrera egindako bide horretan, OSATEKeko profesionalen bultzadak, inplikazioak eta ahaleginek lagundu dute bereziki. Izan ere, langile askok, euskara ikasi, hobetu eta euren lanpostuen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeaz gain, euskara erabiltzen dut egunero, bai barruko lanetan, lankideekin, baita paziente eta erabiltzaileekin ere, eta horrek gure zerbitzuen kalitatea hobetzen du, hizkuntza faktore erabakigarria delako pazienteen eta osasun-langileen arteko komunikazioan eta konfiantzan.

Bigarren Euskara Plan honen helburua da duela urte batzuetatik hona OSATEKen lantzen ari garen arlo askotan sakontzea eta aurrera egitea. Besteak beste, herritarren hizkuntza-eskubideen errespetua bermatzeko lan egitea, erakundearen irudi guztiz elebiduna eskaintzea eta euskaraz lan egin ahal izateko aurrerapausoak egitea. Arlo horiek, nahiz eta ezagunak izan, gure hobekuntza-ahaleginen jomuga izaten jarraitu beharko dute.

2023-2027 Euskara Planak lau urte hauetan gure ibilbidearen ildo nagusiak markatzea nahi dugu, gure gizartearen beharrei eta osasun-erakunde publiko gisa hartu behar ditugun konpromisoei gero eta kalitate handiagoko erantzuna emanez.

Orri hauetan aurkituko dituzue datozen lau urteotan denon artean lortu beharreko helburuak, jardun beharreko esparruak eta gauzatu beharreko ekintzak, haien bidez aurrerapausoak emango baititugu kalitatezko osasun-sistema batean euskara ohiko hizkuntza normalizatua izan dadin.

Erabat sinetsita nago Osatek osatzen dugun pertsona guztien atxikimendua eta parte-hartzea izango dugula, hemen planteatzen dizuegun etorkizuneko ibilbide hau arrakastaz amaitzeko, baita gure inguruko erakundeena ere. Guztion konpromisoa eta lana giltzarri izango dira arrakasta lortzeko.

## 2- Euskara normalizatzeko prozesua OSATEKen

---

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak jasotako aginduak betetzeko, Eusko Jaurlaritzak hainbat legeko xedapen eman izan ditu eta, ondorioz, EAEko administrazioetan euskararen erabileraren normalizazio progresiboa ekarriko duten neurriak hartu dira. Xedapen horietako bat 86/1997 Dekretua da, apirilaren 15ekoa, Euskadiko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Era berean esan behar da badirela bi arau gehiago OSATEKek hizkuntza-kontuetan dituen betebeharrak zehazten dituztenak. Batetik, 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. Lege horrek, VII. kapituluari, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak aitortzen ditu. Bestetik, 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzeko dena.

Gorago aipatutako 86/1997 Dekretu horrek honako hau zehazten du Laugarren Xedapen Gehigarrian: Euskadiko herri-administrazioei lotuta daudenez, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten entitate publikoek nahitaez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatuko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan. Helburu hori betetzeko, entitate publiko horiek, 86/1997 Dekretuan ezarritako irizpideak erabilia, administrazio-kontseiluen bidez, ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Era berean, honako hau zehazten du Dekretu horren Lehen Xedapen Gehigarriak: hezkuntzari, osasunari eta Ertzaintzari dagozkion arloak nolakoak diren eta beren eginkizunetan dituzten berezitasunak aintzakotzat hartuta, hizkuntza-normalizazioaren prozesua gobernatzeko arau bereziak izango direla.

Goian aipatutako Xedapen Gehigarrian, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari dagokion ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28 artikuluko Bosgarren Arau komunean zehaztutakoaren arabera, Osakidetzak, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren bidez, bere normalizazio-plana arautuko zuten oinarriak jarri zituen. Esandako Dekretu horretan aurreikusitakoa betetzeko asmoz, Osakidetzaren Administrazio Kontseiluak hiru plan onartu ditu denboran zehar: lehena (2005-2011), 2005eko maiatzaren 25ean; bigarrena (2013-2019), 2013ko abenduaren 3an; eta hirugarrena (2022-2028), 2022ko urtarrilean.

255/1997 Dekretuaren arabera, OSATEK sozietate publikoa Osakidetzaren Zerbitzu Erakundea da, Osakidetzaren menpean dago, eta hari esleituta dago. Horregatik, OSATEKek bere egin zuen Osakidetzaren administrazio-kontseiluak 2013ko abenduaren 3an hartutako erabakia. Esan behar da OSATEKek ez zuela euskararen erabilera normalizatzeko plan propiorik izan sortu zen urtetik (1992) 2015. urtera arte. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak jarritako plangintzaldietatik kanpo geratu zen 2018ra arte: 1. plangintzaldia (1990-1995), 2. plangintzaldia (1997-2002), 3. plangintzaldia (2003-2007), 4. plangintzaldia (2008-2012), 5. plangintzaldia (2013-2017), 6. plangintzaldia (2018-2022), eta 7. plangintzaldia (2023-2027).

OSATEKek lehen euskara-plan bat (2013-2019) idatzi eta onartu egin zuen 2015eko martxoaren 18an. Idazketa-lanak Osakidetzak euskararen erabilera normalizatzeko bere bigarren planean jasotako jarduera-eremuak eta neurriak kontuan hartu zituen. Hala ere, OSATEKeko zuzendari-gerenteak 2015eko uztailaren 30ean hartutako erabaki baten ondorioz, bertan behera utzi zuen plan hori.

Geroztik, OSATEKek, Eusko Jaurlaritzak finkatutako VI. plangintzaldiaren (2018-2022) baitan, honako hau erabaki zuen bere Administrazio-kontseiluak 2018ko ekainaren 21ean egindako batzarrean: OSATEKeko lanpostu guztiei, euskararen ezagutza-mailari dagokionez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila eta, era berean, zenbait lanposturi, bere izaera eta kokapen geografikoaren arabera, derrigortasun-data esleitzea.

Horretaz gain, 2018ko abenduaren 3an OSATEKen Administrazio Kontseiluak OSATEK, S.A.-n euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo plana (2018-2022) onartu zuen. Plan horren hiru oinarriak hauek izan ziren: herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzea; OSATEKek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzea; eta euskararen erabilera, ahoz eta idatziz, handitzea modu progresiboan, bai kanpora eta bai barrura begira.

Bost urteko plan hura urteroko kudeaketa-planetan xehetu zen, eta egindako ekintza guztiak OSATEKen Euskara Lantaldeak 2022an egindako balorazio- eta diagnostiko-txostenean jaso ziren. Horien artean, hauek dira aipagarrienak: urtero aurreikusitako, egindako eta ez egindako ekintzak; hizkuntza-politikan inbertitutako dirua; hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen xedapena; hizkuntzak normalizatzeko estrategiak; lanpostuei eta langileei buruzko datuak; euskarazko zerbitzua bermatzeko egindako kanpainak; langileen artean euskara gehiago erabiltzeko ekimenak; eta abar.

# 3-OSATEKEN Euskararen Erabilera Normalizatzeko

## 2. Plana: bisioa, oinarriak, helburu orokorrak, aplikazio-eremua, iraupena eta kudeaketa-planak, baliabideak, kudeaketa-egiturak, zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa

---

### BISIOA

2027ko amaierarako, OSATEKek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeaz gain, euskaraz eroso lan egin nahi duten langileei aukera hori ziurtatu nahi die. Horretarako, OSATEK kudeaketa aurreratuaren bidetik abiatuko da, arduradunen lidergoan oinarrituta.

### OINARRIAK

OSATEKen, euskararen normalizazio-prozesuak **hiru printzipio osagarri** izan ditu hasieratik: 1) paziente eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetua; 2) OSATEKek ematen dituen zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntza; eta 3) helburuak modu progresiboan ezartzea.

#### 1. Paziente eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetua

Dokumentu honetako bigarren atalean aipatutakoez gain, EAEko administrazioekiko harremanetan euskaraz jarduteko eta arreta euskaraz jasotzeko eskubidea hainbat lege-xedapenetan jaso izan da, hala nola Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuan, edo Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideen eta Betebeharren Adierazpena onartu zuen 147/2015 Dekretuan. Halaber, Europako Kontseiluak hizkuntza-eskubideen aitortza egin zuen 1992an, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean; bertan adierazten da administrazio ororen betebeharra dela eremu urriko hizkuntzen hitzunei haien hizkuntzan ematea harrera eta arreta, beraiek hala nahi badute, eta berariaz aipatzen dira osasuna dela-eta gizarte- edo osasun-zerbitzuetan artatuak izan behar duten pertsonak. Geroago, 1996an, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala aldarrikatu zen Bartzelonan.

#### 2. OSATEKek ematen dituen zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntza

Bestalde, OSATEKen jarduera asistentzialak eragina du pertsonengan, biziaren alderdi intimo eta garrantzitsu bati lotuta dagoelako, eta egoera horietan komunikazio hurbila eta segurua osasun-arrakastaren giltzarria da. Horregatik, funtsezkoa da paziente eta erabiltzaileei eroso eta seguruen sentitzen diren hizkuntza ofizialean komunikatzeko aukera ziurtatzea, lotuta baitaude hizkuntza, pazientearen segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea.

#### 3. Helburuak modu progresiboan ezartzea

OSATEKen euskara normalizatzeko prozesuak duen hirugarren ezaugarria da euskara arian-arian eta pausoz pauso hedatzen joatea OSATEKeko arlo eta jarduera profesional guztietara. Hori dela eta, 1. planarekin alderatuta, 2.ean helburuak sendotu eta areagotu egin behar dira.

Beraz, aipatutako hiru printzipioak gidari, nagusiki **hiru oinarriren gainean eraiki da** OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: euskarari buruzko egungo egoera eta datuak euskal gizartean zein Osakidetzan; OSATEKen 1. Euskara Planean egindako ibilbidea (egin gabeko ekintzak eta diagnostiko eta ebaluazioetatik ateratako ondorioak); eta Eusko Jaurlaritzak 2023an onartutako VII. Plangintzaldiaren (2023-2027) irizpide eta gidalerroak eta KEMEN markoa, 97/2023 BIKAINen dekretu berriari lotua.

## HELBURU OROKORRAK

OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Planaren helburuak honako hauek dira:

### Hizkuntza-kudeaketaren sistemari dagokionez:

- Euskara-planaren lidergoa ardura-lanpostu guztietara zabaltzea, bakoitzari dagozkion ardurak esleituz.
- Euskara-plana zentro guztietan inplementatzea, tarteko arduradunen bitartez.

### Erabilerari dagokionez:

#### Zerbitzu-hizkuntzaren esparruan (euskara herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza den aldetik):

- Herritarrei zerbitzua eskaintzea, ahoz eta idatziz, aukeratzen duten hizkuntza ofizialean.
- Herritar euskaldunei euskarazko arreta modu aktibo eta sistematikoan eskaintzea.

#### Lan-hizkuntzaren esparruan (euskara OSATEKeko profesionalen lan-hizkuntza den aldetik):

- Barne-komunikazio orokorretan euskararen erabilera bermatzea.
- Nahi duten profesional euskaldunei euskaraz lan egitea ahalbidetzea.
- Langileen hizkuntza-ohituren aldaketa sustatzea, eta, behin aldaketa egonkortuz gero, euskara lan-hizkuntza izango duten gunek finkatzea.
- Langile guztiek jasotzen duten prestakuntza euskaraz ere eskaintzea.
- Osakidetzako eta entitate publiko eta pribatuetako langile euskaldunekin ahozko eta idatzizko komunikazioak sustatzea.

## APLIKAZIO-EREMUA

Euskara normalizatzeko 2. plan honetan jasotzen diren neurriak OSATEKeko zentro guztietan aplikatu beharko dira eta langile guztiei eragingo diete, planean adierazitako lehentasun-mailaren arabera.

Lanpostuei dagokionez, estrategikoak direnek izango dute lehentasuna:

- a) Lehenengo eta behin, arlo asistentzialeko lanpostuak: pazienteekin ahozko edo eta idatzizko etengabeko komunikazioa dutenak. Hurrenkera honetan antolatzen dira lanpostu horiek: 1- idazkariak, 2- laguntzaileak, 3- teknikari manipulatuak, eta 4- erradiologoak.
- b) Bigarren tokian, modu mailakatu eta progresiboan, OSATEKeko zerbitzu nagusiei zuzen-zuzenean lotuta egonik, langileekin ahozko edo eta idatzizko komunikazioa duten lanpostuetan dauden langileak.
- c) Hirugarrenik eta azkenik, modu mailakatu eta progresiboan, OSATEKeko zerbitzu nagusiei zuzen-zuzenean lotuta egonik, administrazioekin, entitate publikoekin eta enpresekin ahozko edo eta idatzizko komunikazioa duten lanpostuetan dauden langileak.

## **IRAUPENA ETA KUDEAKETA-PLANAK**

OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plan honen iraunaldia bost (5) urtekoa izango da eta iraunaldi hori bat etorriko Eusko Jaurlaritzak abian jarritako VII. Plangintzaldiarekin. Ondorioz, 2023ko urtarrilaren 1ean hasi da (nahiz eta plana modu formalean onartuta ez egon) eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da.

Euskararen erabilera normalizatzeko plan hau (2023-2027) 2023an zehar prestatu, adostu eta onartuko da eta bi urteko bi kudeaketa-plan izango ditu (2024-2025 eta 2026-2027). Kudeaketa-plan horiek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) landutako KEMEN ereduari jarraituz idatziko dira. Kudeaketa-plan bakoitzean, urte horiei dagozkien ekintza zehatzak jasoko dira, beti ere plangintzaldiaren amaieran begiz jotako helburuak bete daitezzen.

## **BALIABIDEAK**

Bigarren Euskara Plan honetan jasotzen diren helburuak lortu ahal izateko, eta aurreikusten diren ekintzak egin ahal izateko, OSATEKek giza baliabideak, baliabide materialak eta diruzko baliabideak aurreikusi, neurtu eta jarriko ditu, ahal duen neurrian. Horietaz gain, OSATEKek beste entitateen baliabideak ere erabiliko ditu: Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila, Osakidetza, Euskalit, eta abar.

## **PLANA KUDEATZEKO EGITURAK**

OSATEKeko Administrazio Kontseilua. Euskara Planaren ardura nagusia du eta berari dagokio 2023-2027ko plana eta urteroko kudeaketa-planak onartu, inplementatu eta ebaluatzea.

OSATEKeko Zuzendaritza. Euskararen erabilera normalizatzeko aldera, Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak gauzatzeko ardura Zuzendaritzari dagokio. Zuzendaritzak OSATEKeko zerbitzuetan eta langileen artean euskara normalizatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko maila goreneko ardura hartuko du.

OSATEKeko arduradunak. Plan honetan behin eta berriz agertzen den *arduradunak* izenaren pean, hauek daude: Zuzendaritzako kideak, lurraldeburuak, koordinatzaileak eta atalburuak. Arduradunak ezinbestekoak izango dira planaren lidergoan, haiek betearaziko dituztelako hartzen diren erabaki guztiak.

OSATEKeko Euskara Lantaldea. Euskara Batzordearen 2023ko otsailaren 28ko bileran erabakitakoari jarraituta, Zuzendaritzak, II. Euskara Plana onartzearekin bat, I. Euskara Planean indarrean egon zen *Euskara Batzordea* bertan behera utzi eta *Euskara Lantaldea* izeneko batzordea sortuko du, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aholkuz, KEMEN sistemarekin bat eginda. Euskara Lantaldea OSATEKen hizkuntza-politikaren kudeaketa-organoa izango da eta II. Euskara Plana (2023-2027) eta kudeaketa-planak diseinatu, proposatu, inplementatzen lagundu eta ebaluatuko ditu.

OSATEKeko hizkuntza-normalizazioko teknikaria. Langile honek OSATEKen euskara-planaren ardura tekniko gorena izango du eta Euskara Lantaldeko koordinatzailea izango da.

OSATEKeko Euskara Planeko berariazko taldeak. OSATEKeko Zuzendaritzak —Euskara Lantaldearekin koordinatuta— beharrezkoak ikusten dituen berariazko lantaldeak eratuko ditu, behar den bakoitzean, euskara-planaren kudeaketan eta jarraipenean sor daitezkeen beharrei erantzuteko. Lantalde horien iraunaldia zehatza eta mugatua izango da.

OSATEKetik kanpoko lantaldeak. Euskara Planaren inguruko informazioa eta laguntza jasotzeko, OSATEK elkarlanean arituko da entitate hauekin, besteak beste: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Osasun Saila, Osakidetza, Euskalit, Bizkaia Plazako eraikineko entitateak, EHU, UEU, Soziolinguistika Klusterra, eta abar.

## **PLANAREN ZABALKUNDEA**

Euskara Lantaldeak Euskara Plan honen zirriborro-proposamena Zuzendaritzara bidaliko du, han azter dezaten. Ondoren, Zuzendaritzak arduraren bat duten batzorde eta langileei aurkeztuko die, ekarpenak egin ditzaten; horren ostean, planaren behin-behineko bertsioa jasoko du Zuzendaritzak, eta ekarpenak aztertu eta gero, behin betiko bertsioa onartuko du. Azken bertsio hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko da, haren onespena jasotzeko eta, horren ondoren, Administrazio Kontseilura eramango da, han onar dezaten. Onartu bezain laster, OSATEKeko langile guztiek euskararen erabilera normalizatzeko plan honen berri jasoko dute. Era berean, OSATEKen webgunean argitaratuko da eta entitate interesdunei ere (HPS, Osasun Saila, Osakidetza) planaren berri emango zaie.

## **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskumenei eta egitekoei kalterik egin gabe, OSATEKeko Zuzendaritzak honako plan honen betetze-mailari egin beharreko jarraipenaren eta ebaluazioaren ardura izango du, eta lan hori hizkuntza-normalizazioko teknikariaren laguntzarekin egingo du.

Plan honi bi ebaluazio egingo zaizkio: bata 2025eko amaieran (tarteko ebaluazioa) eta bestea 2027ko amaieran (azken ebaluazio orokorra). Ebaluazioak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Saregin aplikazioaren bidez KEMEN sisteman markatutako helburuen eta ekintzen betetze-maila neurtuko da, zenbait adierazle erabilita.


Horretaz gain, bestelako ebaluazio-tresnak ere erabiliko dira, hala nola, langileentzako eta zentroetarako galdetegiak, urteroko euskarazko prestakuntza-planen balorazioak, ekintza zehatzen balorazioak, eta BIKAIN hizkuntza-kudeaketaren kalitate-ziurtagiriaren ebaluazioak, besteak beste.

Jarraipenaren eta ebaluazioaren helburua izango da begiz jotako helburuen betetze-maila zein den ezagutzea. Bide batez, ebaluazioak ahalbideratu behar du: a) helburuak berrikustea, estrategia eta ekintza berriak proposatzea eta urtero euskara-plana definitzea; b) plan berria jorrazteko orduan, diagnostikoa egitea.

Goian aipatutako tarteko (2025) eta amaierako ebaluazioak (2027) txosten banatan jasoko ditu Euskara Lantaldeak eta, Zuzendaritzan aurkeztu ondoren, OSATEKeko Administrazio Kontseilura eramango dira. Era berean, txosten horiek OSATEKeko langile guztien esku jarriko dira, langile guztiek ezagutu ditzaten; halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, Osasun Sailari eta Osakidetzari ebaluazio-txostenen horren kopia bana bidaliko zaizkie.

Honako euskara-plan honen iraunaldia (2023-2027) agortu eta gero, agortutako plangintzaldiari dagozkion emaitzak zehaztuko ditu OSATEKeko Zuzendaritzak 2028ko lehen hiruhilekoan. Emaitza horiek OSATEKen 3. Euskara Planaren lanketaren abiapuntu izango dira. Besteak beste, honako hauek jasoko ditu azken txostenak: abiapuntuko egoera zein izan zen; zerk huts egin duen; zer da hobetu behar den hori; zer funtzionatu duen, eta abar. Hori egite aldera, OSATEKek gogoeta-saioa antolatuko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean. Saio horretan OSATEKeko langileen ordezkari bat hartuko du parte. Bertan, egindakoa baloratzeko aukera izango dute eta, aldi berean, etorkizuneko ekintzak zehaztuko dituzte.

## 4. OSATEKEN Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: egitura orokorra (ardatzak, arloak, eremuak eta helburu estrategikoak)



## 1. ardatza: KUDEAKETA

**ERRONKA:** Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.

<b>1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b>	<b>1.0.2 arloa: LIDERGOA</b>	<b>1.0.3 arloa: LANGILEAK</b>	<b>1.0.4 arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA</b>	<b>1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA</b>	<b>1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>
<b>Helburu estrategikoa:</b>  Euskara Lantaldeak protagonismoa, autonomia eta eskumenak izatea OSATEKEN 2. Euskara Plana diseinatu, zabaldu, garatu eta ebaluatzeko.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Euskara Lantaldeak arduradunen babesa izatea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Langileei etengabeko informazioa ematea eta haien ekarpenak jaso eta aztertzea. Horrez gain, langile guztiak dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Langileen hizkuntza-ezagutzaren jarraipen sistematikoa egitea: hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak, aitortzen duten maila, eta abar. Horretaz gain, prestakuntza espezifikoa eskaintzea Euskara Lantaldeko kideei: lidergoaz, ahalduntzeaz, erabileraz, motibazioaz, eta abar.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Egiten dugunaren berri ematea (herritarrei eta beste entitate publiko eta pribatuei) eta besteek egiten dutenaren berri izatea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Gaur egun dugun egoera aztertzea, <i>Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak OSATEKEN</i> dokumentuan txertatzea eta horren jarraipena egitea.

11

## 2. ardatza: ERABILERA

**ERRONKA:** OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.

<b>2.1 eremua: ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>		<b>2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA</b>				
<b>2.1.1 arloa: IRUDIA</b>	<b>2.1.2 arloa: HARREMANAK HERRITARREKIN</b>	<b>2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK</b>	<b>2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK</b>	<b>2.2.3 arloa: PRESTAKUNTZA</b>	<b>2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAKAK</b>	<b>2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA</b>
<b>Helburu estrategikoa:</b>  Hizkuntza-paisaian, webgunean eta kanpora begirako ekitaldietan dena bi hizkuntzetan egotea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, ahoz eta idatziz, zentro eta txanda guztietan.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Euskararen erabilera normalizatzea, ahoz eta idatziz.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Entitate publikoekin, idatzizko komunikazio guztiak bi hizkuntzetan egitea eta euskarazko ahozko komunikazioak sustatzea. Entitate pribatuekin, euskarazko idatzizko eta ahozko komunikazioak sustatzea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Langile guztiei etengabe euskarazko prestakuntza eskaintzea lana euskaraz ere egin dezaten, ahoz eta idatziz. Derrigorrezko prestakuntza orokorrean, idazkari eta laguntzaileentzako ikastaroak euskaraz ere eskaintzea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Baliabide informatiko guztiak euskaraz ere jartzeko aukera aztertzea, eta irizpideak eta lehentasunak zehaztea.	<b>Helburu estrategikoa:</b>  Egoeraren jarraipena egin eta gaitasuna duten langileak motibatu eta lagundu euskarazko testuak sor ditzaten.

## 5. OSATEKEN Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana: adierazleak eta 2024-2025erako ekintzak

<b>1. ardatza: KUDEAKETA</b>						
<b>ERRONKA: Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.</b>						
<b>1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b>						
<b>Helburu estrategikoa: Euskara Lantaldeak protagonismoa, autonomia eta eskumenak izatea OSATEKen 2. Euskara Plana diseinatu, zabaldu, garatu eta ebaluatzeko.</b>						
<b>1.0.1.1 ADIERAZLEA: OSATEKek sistema eta egitura bat dauka Euskara Plana kudeatzeko.</b>						
<b>Egoera 2023: %50</b>			<b>Egoera 2027: %100</b>			
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>						
<b>EK-01</b>	<b>EK-02</b>	<b>EK-03</b>	<b>EK-04</b>	<b>EK-05</b>	<b>EK-06</b>	<b>EK-07</b>
Euskara Plana eta herritarren hizkuntza-eskubideak OSATEKen Plan Estrategiko Orokor berrian (2023-2026) jaso.	Euskara Lantaldeak zer egiten duen eta nortzuek osatzen duten langile eta arduradun guztiei azaldu, bilerak, posta elektronikoak eta berriTEK erabiliz.	Euskara Lantaldearen araudia egin.	Euskara Lantaldeak urtero 6 bilera egin, gutxienez.	Euskara Lantaldean erradiologo bat sartu.	<i>Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak OSATEKen dokumentua aztertu eta eguneratu, beste entitateenak kontuan hartuta.</i>	<i>Kalitate- eta ingurumen-politika dokumentuan euskararen normalizazioaren inguruko aipamena sartu.</i>
<b>*1.0.1.2 ADIERAZLEA: Euskara Planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.</b>						
<b>Egoera 2023: %60</b>			<b>Egoera 2027: %90</b>			
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>						
<b>EK-08 Zentroetako galdetegiak zentro guztietan egin urtean bi aldiz (urtarrilean eta ekainean), arduradunen bidez.</b>						

\*Izartxoan duten adierazleak derrigor landu beharrekoak dira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arabera.

<b>1. ardatza: KUDEAKETA</b>	
<b>ERRONKA: Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta langileen partehartze aktiboa baliatuta.</b>	
<b>1.0.2 arloa: LIDERGOA</b>	
<b>Helburu estrategikoa:</b> Euskara Lantaldeak arduradunen babesa izatea.	
<b>*1.0.2.1 ADIERAZLEA:</b> Arduradunek Euskara Planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean hartzen dute parte.	
<b>Egoera 2023: %55</b>	<b>Egoera 2027: %90</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-09</b> Euskara Planaren helburuak, adierazleak eta ekintzak azaltzeko eta ebaluatzeko bi bilera egin urtero (ekainean eta abenduan) arduradun guztiekin.	
<b>*1.0.2.2 ADIERAZLEA:</b> Arduradunek jarrera proaktiboa dute Euskara Planaren helburuak bete daitezzen.	
<b>Egoera 2023: %25</b>	<b>Egoera 2027: %50</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-10</b>	<b>EK-11</b>
Arduradunei prestakuntza-saio bat eman gai hauen inguruan: lidergoa, sentsibilizazioa, motibazioa, konpromisoa.	Arduradunei informazio espezifikoa eman, posta elektronikoz, gai hauen inguruan: lidergoa, sentsibilizazioa, motibazioa, konpromisoa.

**1. ardatza: KUDEAKETA**

**ERRONKA:** Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.

**1.0.3 arloa: LANGILEAK**

**Helburu estrategikoa:** Langileei etengabeko informazioa ematea eta haien ekarpenak jaso eta aztertzea. Horrez gain, langile guztiek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzea.

<b>1.0.3.1 ADIERAZLEA:</b> Langileei informazioa ematen zaie Euskara Planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute nola kudeatu behar dituzten hizkuntzak lanean.				
<b>Egoera 2023: %84</b>		<b>Egoera 2027: %95</b>		
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>				
<b>EK-12</b>	<b>EK-13</b>	<b>EK-14</b>	<b>EK-15</b>	<b>EK-16</b>
Euskara Plana langile eta arduradunei zabaldu eta azaldu, eta ekarpenak egiteko bideak eskaini.	<i>Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak OSATEKen dokumentu eguneratua arduradun eta gainerako langileei zabaldu.</i>	Harrera Plana aztertu: nork egiten duen, noiz, non, nola, zein hizkuntzatan.	Langile berriei Euskara Planaren eta hizkuntza-irizpideen inguruko informazioa ematen zaiola bermatu.	Idazkari eta laguntzaileen prestakuntza-gida orokorretan hizkuntzaren kudeaketari buruzko aipamenak sartu.

<b>*1.0.3.2 ADIERAZLEA:</b> Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	
<b>Egoera 2023: %50</b>	<b>Egoera 2027: %75</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-17</b> Lanpostuen eta langileen hizkuntza-egoeraren jarraipena egin.	

<b>1.0.3.3 ADIERAZLEA:</b> Langileek parte hartzen dute euskararen aldeko sustapen-ekintzetan.				
<b>Egoera 2023: %48</b>		<b>Egoera 2027: %60</b>		
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>				
<b>EK-18</b>	<b>EK-19</b>	<b>EK-20</b>	<b>EK-21</b>	<b>EK-22</b>
Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu eta aldarrikatu: langile guztiei begira eta Bizkaia Plazako entitateekin batera.	Urtero bi lehiaketa egin (oporretako postala, hitzik gustukoena, gai baten inguruko galdetegia, hiztegia, tresnen izenak...) euskararen inguruan.	OSATEKek 2025eko <i>Euskaraldian</i> parte hartu.	OSATEKek 2024ko Korrikan parte hartu.	OSATEKek <i>Errigora</i> kanpainaren berri eman urtero langileei.

<b>*1.0.3.4 ADIERAZLEA:</b> Langileek ondo baloratzen dute euskararen erabilera normalizatzeko prozesua OSATEKen.	
<b>Egoera 2023: %54</b>	<b>Egoera 2027: %70</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-23</b> Galdetegi bat egin langile guztiei, gai hauei buruzkoa: euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerak.	

**1. ardatza: KUDEAKETA**

**ERRONKA: Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.**

**1.0.4 arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA**

**Helburu estrategikoa:** Langileen hizkuntza-ezagutzaren jarraipen sistematikoa egitea: hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak, aitortzen duten maila, eta abar. Horretaz gain, prestakuntza espezifikoa eskaintzea Euskara Lantaldeko kideei: lidergoaz, ahalduntzeaz, erabileraz, motibazioaz, eta abar.

**1.0.4.1 ADIERAZLEA:** Langileak gai dira euskaraz lan egiteko, ahoz.

**Egoera 2023: %46**

**Egoera 2027: %65**

**EKINTZAK 2024-2025**

<b>EK-24</b>	<b>EK-25</b>	<b>EK-26</b>	<b>EK-27</b>	<b>EK-28</b>	<b>EK-29</b>
Legeak ezartzen duen lanpostu-kopuruan derrigortasun-data berriak ezarri eta data igarota duten lanpostuen jarraipena egin.	Langileen hizkuntza-erregistroa eguneratu urte bakoitzaren hasieran.	Garapen jasangarrirako helburuen 17+1 ereduaren inguruko prestakuntza eskaini Euskara Lantaldeko eta Berdintasun Batzordeko kideei.	Euskara Lantaldeko kideei bi prestakuntza-saio eskaini (bata 2024an eta bestea 2025ean), gai hauen inguruan: lidergoa, sentsibilizazioa, motibazioa, konpromisoa, ahalduntzea, euskararen erabilera.	Aztertu ea posible den euskarazko gutxieneko ulermen-maila eskatzea (B1, egiaztatuta edo ez), meritu edo baldintza modura, Zuzendaritzako kide, lurraldeburu, koordinatzaile edo eta atalburu izateko.	Aztertzea, HPSrekin batera, OSATEKen lanpostuetan ezarrita dagoen B2 maila egokia ote den, lanpostuen ezaugarriak kontuan hartuta eta 19/2024 Dekretuarekin bat eginda.

**1. ardatza: KUDEAKETA****ERRONKA: Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.****1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA****Helburu estrategikoa: Egiten dugunaren berri ematea (herritarrei eta beste entitate publiko eta pribatuei) eta besteek egiten dutenaren berri izatea.****1.0.5.1 ADIERAZLEA: OSATEKek Euskara Plana komunikatzen die herritarrei eta beste entitateei.****Egoera 2023: %90****Egoera 2027: %100****EKINTZAK 2024-2025**

<b>EK-30</b>	<b>EK-31</b>	<b>EK-32</b>	<b>EK-33</b>
Webgunean (Internet) dagoen Euskara Planari buruzko informazioa eguneratu.	Herritarrei Euskara Planaren berri eman, zentroetan utzitako esku-orrien bidez.	Inguruko entitate publiko eta pribatuei (administrazioak, hornitzaileak, laguntzaileak...) gure Euskara Planaren berri eman, posta elektronikoko bidez.	Beste entitateen (HPS, Osasun Saila, Osakidetza, EHU, Euskalit...) ekitaldietan parte hartu, gure Euskara Planaren berri emateko.

**1.0.5.2 ADIERAZLEA: Beste entitateen hizkuntza-esperientziak ezagutzen ditu OSATEKek, eta harremana du haiekin.****Egoera 2023: %95****Egoera 2027: %100****EKINTZAK 2024-2025**

<b>EK-34</b>	<b>EK-35</b>	<b>EK-36</b>
Beste entitateen (HPS, Osasun Saila, Osakidetza, EHU, Euskalit...) ekitaldietan parte hartu, besteen planen berri izateko.	Osakidetzaren <i>Osatuberrri</i> aldizkaria OSATEKen zentro guztietan banatu.	BIKAINen ebaluatzaile-lanetan jarraitu, beste entitate batzuen lana ebaluatzen.

<b>1. ardatza: KUDEAKETA</b>	
<b>ERRONKA:</b> Hizkuntzen kudeaketa OSATEKeko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradunen eta gainerako langileen partehartze aktiboa baliatuta.	
<b>1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>	
<b>Helburu estrategikoa:</b> Gaur egun dugun egoera aztertzea, <i>Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak OSATEKen</i> dokumentuan txertatzea eta horren jarraipena egitea.	
<b>*1.0.6.1 ADIERAZLEA:</b> Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetakoz hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	
<b>Egoera 2023: %25</b>	<b>Egoera 2027: %50</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-37</b> Klausulen inguruko galdetegi bat prestatu eta urtero Ekonomia eta Finantzak atalera pasa.	

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>	
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>	
<b>2.1 eremua: ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>	
<b>2.1.1 arloa: IRUDIA</b>	
<b>Helburu estrategikoa: Hizkuntza-paisaian, webgunean eta kanpora begirako ekitaldietan dena bi hizkuntzetan egotea.</b>	
<b>2.1.1.1 ADIERAZLEA: Herritarrentzako errotulu, kartel eta ohar guztiak euskaraz (ere) daude.</b>	
<b>Egoera 2023: %95</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-38</b>	<b>EK-39</b>
Estandarizatu gabe dauden zentro guztietako errotulu, kartel eta oharrak aldatu.	Zentroetako telefonoen erantzungailu automatikoak zein hizkuntzatan dauden aztertu eta euskaraz ere jarri, hala badagokio.
<b>2.1.1.2 ADIERAZLEA: Aurkezpen eta ekitaldi publikoetan euskara (ere) erabiltzen da.</b>	
<b>Egoera 2023: %50</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-40</b>	<b>EK-41</b>
Aurkezpen eta ekitaldien hizkuntza-ebaluaziorako galdetegia egin eta I+G+b atalera bidali, saioen ostean erabili dezaten.	Aurkezpen eta ekitaldien hizkuntza-ebaluaziorako galdetegiaren jarraipena egin urtean bi aldiz (ekainean eta abenduan).
<b>2.1.1.3 ADIERAZLEA: Webgunea (Internet) euskaraz ere badago.</b>	
<b>Egoera 2023: %100</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-42 Webgunean (Internet) aldatzen edo gehitzen den guztia euskaraz ere jarri.</b>	

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>
<b>2.1 eremua: ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>
<b>2.1.2 arloa: HARREMANAK HERRITARREKIN</b>
<b>Helburu estrategikoa: Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, ahoz eta idatziz, zentro eta txanda guztietan.</b>

<b>*2.1.2.1 ADIERAZLEA:</b> Ahozko harremanetan, langileek euskararen aldeko jarrera aktiboa dute: euskarazko zerbitzua eskaintzen dute eta euskara erabiltzera gonbidatzen dituzte herritarrek.	
<b>Egoera 2023: %20</b>	<b>Egoera 2027: %60</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-43</b> Langileei euskarazko zerbitzuaren eskaintza aktiboaren inguruko informazio espezifiko eman, posta elektronikoz.	

<b>*2.1.2.2 ADIERAZLEA:</b> Euskaraz hitz egin nahi duten herritarrei euskarazko zerbitzua ematen zaie.			
<b>Egoera 2023: %64</b>		<b>Egoera 2027: %100</b>	
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>			
<b>EK-44</b>	<b>EK-45</b>	<b>EK-46</b>	<b>EK-47</b>
Prestakuntza-saio bat antolatu Osakidetzarekin, OSATEKen lurraldeburu, koordinatzaile eta Euskara Lantaldekoentzat, pazienteen euskararen logoaren kudeaketari buruz.	OSATEKen aplikazio informatikoetan pazienteen euskararen logoa txertatzea posible den aztertu, Osakidetzarekin batera.	Zentro guztietan pazienteen euskararen logoen kopuruen laginak hartu urtero bi aldiz (urtarrilean eta ekainean).	Zumarragan eta Eibarren <i>euskararen txandak</i> antolatzen jarraitu, eta urtero gutxienez 6 txanda egin zentro horietako bakoitzean.
<b>EK-48</b>	<b>EK-49</b>	<b>EK-50</b>	<b>EK-51</b>
<i>Euskararen txandak</i> hirugarren zentro batean antola daitezkeen aztertu.	Zentro eta txanda guztietan euskarazko zerbitzua bermatzeko (gutxienez langile elebidun bat egotea) zer egin daitekeen aztertu.	Langileen laneko txarteletan euskararen logoa jartzearen eta erabiltzearen aldeko mezuak bidali, posta elektronikoz.	Harrera-gida urdinak erabiltzearen aldeko mezuak bidali, posta elektronikoz.
<b>EK-52</b>	<b>EK-53</b>	<b>EK-54</b>	<b>EK-55</b>
Mostradoreetako piramideak zentro guztietan erabiltzen ote diren aztertu.	EM makinetan pazienteei ematen zaizkien aginduak euskaraz ere grabatu ote daitezkeen aztertu, eta hala egin daitekeenean, euskaraz jarri.	Teknikarientzako oinarritzko hizkuntza-protokoloa egin eta banatu, euskararen logoa duten pazienteentzako ohiko aginduak euskaraz esateko.	Euskararen logoa duten pazienteei Osakidetzak erabiltzen duen inkesta pasatzea posible den aztertu.
<b>EK-56</b> Pazienteentzako inkestetan, euskarari buruzko galderak gainbegiratu eta galdera berriak sartu pazienteen euskararen logoaren eta gure langileen euskararen logoen inguruan.			

<b>*2.1.2.3 ADIERAZLEA:</b> Herritarrei ematen zaizkien dokumentuak euskaraz (ere) daude.			
<b>Egoera 2023: %100</b>		<b>Egoera 2027: %100</b>	
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>			
<b>EK-57</b>	<b>EK-58</b>	<b>EK-59</b>	<b>EK-60</b>
Estandarizatu gabe dauden dokumentuak aldatu, halakorik balego.	Erradiologoek txostenen karatula bi hizkuntzetan jarri (eremu guztietako testuak, txostenaren testua izan ezik).	Zitazio-orriaren tamaina A4ra handitu nahi dugun aztertu, orrialde bakar batean bi hizkuntzak sartzeko.	Euskararen logoa duten pazienteei erradiologoek txostena euskaraz eskaintzea posible den aztertu.

<b>*2.1.2.4 ADIERAZLEA:</b> Herritarrek euskaraz bidalitako dokumentuei euskaraz erantzuten zaie.	
<b>Egoera 2023: %100</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-61</b> Herritarrek OSATEKera euskara hutsean bidalitako dokumentuei euskara hutsean erantzun.	

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>
<b>2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA</b>
<b>2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK</b>
<b>Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera normalizatzea, ahoz eta idatziz.</b>

<b>2.2.1.1 ADIERAZLEA: Lan-bilerak euskaraz ere egiten dira.</b>	
<b>Egoera 2023: %22</b>	<b>Egoera 2027: %50</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-62</b>	<b>EK-63</b>
OSATEKen egiten diren batzorde eta lantalde egituratuen bilera formal guztiak aztertu, horietan euskararen presentzia eta erabilera handitzeko: bileren maiztasuna, kopurua, kide-kopurua, kideen euskara-maila, euskararen erabilera-maila, eta banatzen eta erabiltzen den dokumentazioa.	Aurrerantzean sortzen diren batzorde eta lantalde egituratueta langileen hizkuntza-eskubideak nola bermatu daitezkeen aztertu.

<b>*2.2.1.2 ADIERAZLEA: Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.</b>		
<b>Egoera 2023: %20</b>	<b>Egoera 2027: %30</b>	
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>		
<b>EK-64</b>	<b>EK-65</b>	<b>EK-66</b>
Bizkaia Plazan <i>Aldahitz</i> dinamikaren 4. edizioa antolatu.	Beste zentzoren batean <i>Aldahitz</i> dinamika egitea posible den aztertu.	<i>OSATEKen ere, euskaraz bai sano!</i> kanpainaren 2. faseko ekintzak egin: langile elebidunak identifikatu barneko aplikazio eta komunikazioetan, langile elebidunen arteko euskarazko harremanak sustatzeko.

<b>2.2.1.3 ADIERAZLEA: Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.</b>	
<b>Egoera 2023: %21</b>	<b>Egoera 2027: %30</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-67 "Astean behin kafea euskaraz" moduko dinamikaren bat zentzoren batean antolatzea posible den aztertu.</b>	

<b>*2.2.1.4 ADIERAZLEA:</b> OSATEK barruko idatzizko komunikazioa eta dokumentazioa euskaraz (ere) dago.		
<b>Egoera 2023: %87</b>		<b>Egoera 2027: %95</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>		
<b>EK-68</b>	<b>EK-69</b>	<b>EK-70</b>
Intraneten eta paperean gehien erabiltzen diren dokumentuetatik, estandarizatu gabe dauden 10 aukeratu eta estandarizatu.	Nominetako mezu elektronikoaren testuak zuzendu.	Lanketa berezia egin Giza Baliabideetatik, lurraldeburuengandik eta koordinatzaileengandik langileei bidaltzen zaizkien mezu elektronikoak euskaraz (ere) egon daitezzen.
<b>*2.2.1.5 ADIERAZLEA:</b> Langileentzako errotulu, kartel eta ohar guztiak euskaraz (ere) daude.		
<b>Egoera 2023: %81</b>		<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>		
<b>EK-71</b>	<b>EK-72</b>	
Zentroetan estandarizatu gabe dauden errotulu, kartel eta oharrak aldatu.	Osakidetzaren euskara hutsezko egutegiak (mahai gainekoak eta hormakoak) Osakidetzari eskatu eta zentro guztietara bidali.	

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>
<b>2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA</b>
<b>2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK</b>
<b>Helburu estrategikoa:</b> Entitate publikoekin, idatzizko komunikazio guztiak bi hizkuntzetan egitea eta euskarazko ahozko komunikazioak sustatzea. Entitate pribatuekin, euskarazko idatzizko eta ahozko komunikazioak sustatzea.

<b>2.2.2.1 ADIERAZLEA:</b> Entitate publikoekin euskaraz (ere) egiten dira ahozko komunikazioak.	
<b>Egoera 2023: %22</b>	<b>Egoera 2027: %35</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-73</b> OSATEKek fakultatiboei egiten dizkien gogobetetze-galdetegietan hizkuntzaren inguruko informazioa jaso.	

<b>2.2.2.2 ADIERAZLEA:</b> Entitate pribatuei euskaraz (ere) bidaltzen zaizkie dokumentuak.	
<b>Egoera 2023: %50</b>	<b>Egoera 2027: %60</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-74</b> Langileei jakinarazi IMQren mediku-azterketen dokumentazio guztia euskaraz ere badutela.	

**2. ardatza: ERABILERA**

**ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.**

**2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA**

**2.2.3 arloa: PRESTAKUNTZA**

**Helburu estrategikoa:** Langile guztiei etengabe euskarazko prestakuntza eskaintzea lana euskaraz ere egin dezaten, ahoz eta idatziz. Prestakuntza orokorrean, idazkari eta laguntzaileentzako ikastaroak euskaraz ere eskaintzea.

**2.2.3.1 ADIERAZLEA:** Euskaraz eskaintzen zaie derrigorrezko prestakuntza orokorra langileei.

<b>Egoera 2023: %15</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-75</b>	<b>EK-76</b>
Derrigorrezko prestakuntza orokorraren hizkuntza-ebaluaziorako galdetegia egin eta Giza Baliabideen atalera eta Kalitate atalera bidali.	Derrigorrezko prestakuntza orokorraren hizkuntza-ebaluaziorako galdetegia bete prestakuntza bakoitzaren ostean.

**2.2.3.2 ADIERAZLEA:** Euskaraz dakiten langileek euskaraz jasotzen dute derrigorrezko prestakuntza orokorra.

<b>Egoera 2023: %18</b>	<b>Egoera 2027: %50</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-77</b>	<b>EK-78</b>
Idazkari eta laguntzaile elebidun berrien zentroetako prestakuntza (lanpostuaren formazioa) euskaraz izan daitekeen aztertu.	OSATEKeko langileek IVAPen eta Osakidetzaren prestakuntza orokorra euskaraz jasotzeko aukerarik duten aztertu.

**2.2.3.3 ADIERAZLEA:** Euskarazko prestakuntza eskaintzen zaie langileei.

<b>Egoera 2023: %100</b>	<b>Egoera 2027: %100</b>		
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>			
<b>EK-79</b>	<b>EK-80</b>	<b>EK-81</b>	<b>EK-82</b>
Urteroko Euskarazko Prestakuntza Plana egin eta martxan jarri, aurreko planetatik jasotako ekarpenak kontuan hartuta.	Kike Amonarrizen <i>Euskara, etorkizuneko erronka</i> prestakuntza-saioak egin Zumarragan, Eibarren, Areizan, Deustun eta Urdulizen.	OSATEKeko langileek IVAPen eta Osakidetzaren euskarazko prestakuntza espezifikoak jasotzeko aukerarik duten aztertu.	OSATEKeko langileek IVAPen eta Osakidetzaren euskara-azterketak egin ditzaketan aztertu.

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>	
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>	
<b>2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA</b>	
<b>2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>	
<b>Helburu estrategikoa:</b> Baliabide informatiko guztiak euskaraz ere jartzeko aukera aztertzea, eta irizpideak eta lehentasunak zehaztea.	
<b>2.2.4.1 ADIERAZLEA:</b> OSATEKek langileei euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak eskaintzen dizkie.	
<b>Egoera 2023: %8</b>	<b>Egoera 2027: %50</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-83</b>	<b>EK-84</b>
OSATEKen erabiltzen diren aplikazio informatiko guztien hizkuntza-egoera aztertu.	Bizkaia Plazako langileei Windows eta Office euskaraz instalatzea posible den aztertu.

<b>2. ardatza: ERABILERA</b>	
<b>ERRONKA: OSATEKek herritaren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.</b>	
<b>2.2 eremua: LAN-HIZKUNTZA</b>	
<b>2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA</b>	
<b>Helburu estrategikoa:</b> Egoeraren jarraipena egin eta gaitasuna duten langileak motibatu eta lagundu euskarazko testuak sor ditzaten.	
<b>2.2.5.1 ADIERAZLEA:</b> Euskaraz sortzen dira dokumentuak.	
<b>Egoera 2023: %5</b>	<b>Egoera 2027: %15</b>
<b>EKINTZAK 2024-2025</b>	
<b>EK-85</b> Langileei itzultzaile automatikoen inguruko informazioa bidali, posta elektronikoz, urtean bi aldiz.	

## 6. 2024-2025erako ekintzak: kronograma eta arduradunak

### KRONOGRAMA

2024ko lehen seihilekoa									
EK-02	EK-03	EK-04	EK-05	EK-06	EK-07	EK-08	EK-09	EK-10	EK-11
EK-12	EK-13	EK-19	EK-21	EK-22	EK-24	EK-25	EK-28	EK-30	EK-31
EK-32	EK-33	EK-34	EK-35	EK-36	EK-38	EK-39	EK-40	EK-41	EK-42
EK-43	EK-45	EK-46	EK-47	EK-48	EK-51	EK-57	EK-59	EK-61	EK-64
EK-68	EK-69	EK-71	EK-74	EK-78	EK-79	EK-81	EK-82	EK-84	EK-85
2024ko bigarren seihilekoa									
EK-02	EK-04	EK-09	EK-11	EK-14	EK-15	EK-16	EK-17	EK-18	EK-19
EK-22	EK-24	EK-27	EK-32	EK-33	EK-34	EK-35	EK-36	EK-37	EK-38
EK-41	EK-42	EK-43	EK-47	EK-49	EK-50	EK-51	EK-52	EK-54	EK-57
EK-58	EK-61	EK-62	EK-63	EK-65	EK-66	EK-68	EK-71	EK-72	EK-75
EK-80	EK-85								
2025eko lehen seihilekoa									
EK-02	EK-04	EK-08	EK-09	EK-11	EK-17	EK-19	EK-20	EK-22	EK-23
EK-24	EK-25	EK-32	EK-33	EK-34	EK-35	EK-36	EK-38	EK-41	EK-42
EK-43	EK-44	EK-46	EK-47	EK-48	EK-50	EK-51	EK-53	EK-55	EK-56
EK-57	EK-60	EK-61	EK-67	EK-68	EK-70	EK-71	EK-73	EK-74	EK-76
EK-79	EK-80	EK-83	EK-85						
2025eko bigarren seihilekoa									
EK-02	EK-04	EK-09	EK-10	EK-11	EK-17	EK-18	EK-19	EK-22	EK-24
EK-26	EK-27	EK-29	EK-32	EK-33	EK-34	EK-35	EK-36	EK-37	EK-38
EK-41	EK-42	EK-43	EK-47	EK-50	EK-51	EK-57	EK-61	EK-68	EK-70
EK-71	EK-72	EK-76	EK-77	EK-80	EK-85				

27

### ARDURADUNAK

Z (Zuzendaritza)	EK-05	EK-06	EK-07	EK-08	EK-09
	EK-10	EK-11	EK-12	EK-13	EK-17
	EK-18	EK-20	EK-21	EK-23	EK-24
	EK-28	EK-29	EK-32	EK-33	EK-34
	EK-37	EK-43	EK-44	EK-45	EK-48
	EK-49	EK-50	EK-51	EK-55	EK-60
	EK-62	EK-63	EK-65	EK-66	EK-74
	EK-77	EK-78	EK-79	EK-80	EK-81
	EK-82	EK-85			
LB (Lurraldeburuak)	EK-08	EK-14	EK-15	EK-34	EK-38
	EK-43	EK-47	EK-48	EK-49	EK-50
	EK-51	EK-54	EK-57	EK-60	EK-62
	EK-63	EK-65	EK-66	EK-68	EK-71
	EK-72	EK-76	EK-77	EK-79	EK-80
	EK-85				

<b>K</b> (Koordinatzaileak)	EK-08	EK-14	EK-15	EK-16	EK-20
	EK-23	EK-31	EK-34	EK-35	EK-38
	EK-39	EK-43	EK-46	EK-48	EK-49
	EK-52	EK-53	EK-54	EK-55	EK-56
	EK-57	EK-59	EK-62	EK-63	EK-65
	EK-66	EK-68	EK-71	EK-72	EK-77
	EK-79	EK-80	EK-85		

<b>EL</b> (Euskara Lantaldea)	EK-02	EK-03	EK-04	EK-05	EK-06
	EK-08	EK-12	EK-13	EK-16	EK-17
	EK-19	EK-20	EK-21	EK-23	EK-24
	EK-28	EK-31	EK-34	EK-35	EK-38
	EK-39	EK-44	EK-46	EK-48	EK-49
	EK-52	EK-53	EK-54	EK-55	EK-56
	EK-57	EK-59	EK-65	EK-66	EK-67
	EK-68	EK-71	EK-72	EK-77	EK-79

<b>HNT</b> (Hizkuntza-normalizazioko teknikaria)	Ekintza guztiak				
--	-----------------	--	--	--	--

<b>GB</b> (Giza Baliabideak)	EK-04	EK-05	EK-09	EK-10	EK-11
	EK-14	EK-15	EK-16	EK-17	EK-24
	EK-25	EK-26	EK-27	EK-44	EK-47
	EK-48	EK-49	EK-62	EK-63	EK-64
	EK-65	EK-66	EK-69	EK-70	EK-74
	EK-75	EK-76	EK-77	EK-80	

<b>KK</b> (Kalitatea eta Kudeaketa)	EK-07	EK-08	EK-09	EK-10	EK-14
	EK-15	EK-16	EK-23	EK-26	EK-34
	EK-38	EK-44	EK-45	EK-48	EK-49
	EK-53	EK-54	EK-55	EK-56	EK-57
	EK-58	EK-59	EK-60	EK-62	EK-63
	EK-65	EK-66	EK-68	EK-71	EK-73
	EK-74	EK-75	EK-76	EK-77	

<b>ZI</b> (Zuzendariaren idazkaria)	EK-30	EK-35	EK-42	EK-61
-------------------------------------	-------	-------	-------	-------

<b>EF</b> (Ekonomia eta Finantzak)	EK-37	EK-53		
------------------------------------	-------	-------	--	--

<b>TIS</b> (Teknologia eta Informazio Sistemak)	EK-39	EK-45	EK-53	EK-58	EK-66
	EK-83	EK-84			

<b>IGB</b> (Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza)	EK-40	EK-41	EK-76
---	-------	-------	-------

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILAHizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Herri Administrazioetan Hizkuntza  
Normalizatzeko ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICAViceconsejería de Política Lingüística  
Dirección de Normalización Lingüística de  
las Administraciones PúblicasOSATEK-EN  
EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO  
II PLANA (2023-2027):  
PROPOSAMENARI ERANTZUNA

2024ko martxoaren 6an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) jaso zuen OSATEKen 2023-2027 epealdirako erabilera planaren proposamena. Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen martxoaren 8ko 19/2024 Dekretuaren 17.8 artikulua xedatutakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi hilabete baino lehen egingo du jasotako plan-proposamenari buruzko txostena.

## Diagnostikoa egiteko erabilitako metodologia

Azpimarratu behar da 2023an OSATEKek parte hartu duela KEMEN markoaren pilotatze-fasean, EAEko beste 4 entitatekin batera. Lau hilabeteko prozesu horretan, ekintza nagusi hauek gauzatu dituzte:

- Marko berriaren aurkezpena OSATEKeko arduradunentzat, HPSko arduradunen eskutik.
- Entitatearen eta langileen hizkuntza-egoeraren diagnostikoa.
- Euskara Lantaldea sortzea Euskara Plana baloratzeko eta II. Euskara Plana diseinatzeko.
- OSATEKeko arduradunentzat eta Euskara Lantaldearentzat prestakuntza eta koordinazioa Elhuyar eta HPSrekin, II. Euskara Plana sortzeko.

Beraz, EAEko herri administrazioetan euskara erabilera normalizatzeko VII. Plangintzaldiarekin bat dator OSATEKen II. Plan hau. Izan ere, plangintzaldi honetan kudeaketari lotutako adierazle berriak daudenez, diagnostikoa zenbait informazio berrirekin osatu dute.

## Derrigortasun-indizea

OSATEKen 226 lanpostu daude. Horietako 59k derrigortasun-data dute. OSATEKek 2023an abiatu duen plangintzaldian beste 101 lanpostutan derrigortasun-datak ezartzea aurreikusi dute. Beraz, guztira 160 lanpostuk izango dute derrigortasun-data, plangintzaldi honetarako dagokion indizea betez eta Euskal Sektore Publikoan





KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Herri Administrazioetan Hizkuntza  
Normalizatze Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Viceconsejería de Política Lingüística  
Dirección de Normalización Lingüística de  
las Administraciones Públicas

euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 8ko 19/2024 Dekretuari jarraituz.

## VII. Plangintzaldiaren gidalerroak

VII. Plangintzaldirako gidalerroetan jasota dagoenez, herri-erakundeek dagokien autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukate; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko betebeharra. EAEn hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharrizan hori planen bitartez gauzatzen da.

Edozein modutan ere, euskara planak arrakastatsuak izateko, plana bera izateaz gain, hiru baldintza hauek ere bete behar dira halaberrez:

1. Egitura: Sail eta erakunde bakoitzaren baitan euskararen kudeaketarako batzorde bat sortu beharra dago, agintari politikoek, agintari teknikoek eta langileek osatutakoa, zeharkakoa, eta erabakitze ahalmena duena. Batzorde horren ardura izango da, besteak beste, kudeaketa orokorraren barruan txertatzea euskararen kudeaketa, planak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea. Arduradun politikoek lidergoa eta gidaritza erakutsi behar dute euren sailtako hizkuntza-politikan.
2. Sistematika: Sail eta erakunde bakoitzak prozesua kudeatzeko sistematika bat jarri behar du martxan, erakundearen egoera edo abiapuntua aztertu, helburuak adostu, helburu horiek lortzeko ekintzak antolatu eta abian jarri eta, batez ere, prozesua aldiari behin ebaluatu eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egin hasierako planteamenduan.
3. Adostasuna: Planak aurrera eramateko guztion adostasuna, inplikazioa eta elkarlana behar dira. Erakundeak konpromiso batzuk hartu behar ditu langileekiko, eta langileek (politikoek zein teknikariek) konpromiso batzuk hartu behar dituzte euskararen erabilerarekiko.

Hiru elementu horiek kudeaketari dagozkio, eta kudeaketak lanabesa izan behar du euskararen erabilera igotzeko.



Hona hemen VII. Plangintzaldirako gidalerro nagusiak:

- Erakundeko gainerako arloetan bezalaxe, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Administrazioan hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak.
- Erakundean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko zeharkako egitura bat sortzea ezinbestekoa izango da.
- EAEko sektore publikoko erakunde bakoitzak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu behar ditu, betiere haren hizkuntza-plangintzaren esparruan. Irizpideek oinarrizko jardun-ildoak ematen dituzte, bai erakundeek bai bertako langileek, hizkuntza-arloan nola jokatu behar duten jakin dezaten.
- Plan estrategikoak eta kudeaketa planak ezinbesteko tresnak dira erakundean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko.
- KEMEN (Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako) edozein erakunde motatan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko sistema integrala da, eta euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen ditu.

OSATEK bat dator VII. Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzak ezarritako gidalerro horiekin.



Indarguneak eta zer hobetuak

Beraz, erabilera plan honetan ondorengo indarguneak eta zer hobetuak nabarmendu nahi ditu HPSk:

Indarguneak:

- OSATEKen II. Plan honetan modu argian adierazi da zein den bisioa eta zein diren hiru oinarri nagusiak: paziente eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak babestea, zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea eta helburuak modu progresiboan ezartzea.
- Era berean, argi adierazi dira zeintzuk diren planaren lehentasunak, baliabideak eta plana kudeatzeko egitura.
- Planean oso egoki azaltzen da plana nola osatu eta zabalduko den. Euskara lantaldeak lehen proposamena egiten duenetik, batzorde eta langileen ekarpenak jaso, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak onetsi, Administrazio Kontseiluan onartu eta zabalkundea egin, langileei helaraziz, webgunean argitaratuz eta erakunde interesdunei jakinaraziz.
- OSATEKeko zuzendaritzak hartuko du ebaluazioaren ardura, eta 19/2024 Dekretuan jasota dagoen bezala, tarteko (2025) eta amaierako ebaluazioak (2027) txosten banatan jasoko ditu Euskara lantaldeak. Ondoren, txosten horiek langile guztien esku jarriko ditu.
- OSATEKen II Plan honetako adierazleek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) landutako KEMEN eredu berriari jarraitzen diote. Halaber, adierazleen egoera, helburua eta horiei lotutako 2024-2025 urteetarako ekintza zehatzak jasotzen dira.
- Datozen bi urteetarako ekintza ugari aurreikusi dira. Ekintza bakoitzak fitxa batean jasotzen ditu modu argian zein den oraingo egoera, zein den helburua, gauzatzeko epeak, nor diren ekintzaren arduradunak eta hartzaileak, behar diren baliabideak eta aurrekontua eta zein diren ebaluaziorako tresnak.
- Derrigortasun-data berriak esleitzeko, oso irizpide egokiak erabili dira lehentasunak ezartzeko orduan: lanpostuaren izaera eta



lanpostuaren eremu soziolinguistikoa. Horien arabera, lanpostuak bi lehentasun-mailatan sailkatu dituzte eta derrigortasun-daten gutxieneko portzentajea ezarri dute, Osakidetzak Hirugarren Euskara Planean egiten duen moduan.

- Dekretu berriaren helburua da Euskara ere erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza gisa ezartzea euskal sektore publikoko entitateen jardunean. Beraz, nabarmentzekoa da euskaraz aritzeko eremuak sortzeko ahalegina, esaterako, batzorde eta lantaldeetako bileretan euskara erabiltzeko aukerak zabaltzea, edota Aldahitz dinamika antolatzea.

Zer hobetuak:

- OSATEKeko bi zentrok lortu zuten tarteko BIKAIN ziurtagiria: Zumarragakoak 2020an eta Eibarkoak 2021ean. Dena dela, 2023ko uztailaren 12an erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen 97/2023 Dekretua argitaratu zen. Horren ondorioz, sektore publikorako ebaluazioak KEMEN marko berriarekin lerrokatuta egongo dira. Beraz, lagungarria litzateke OSATEKek plangintzaldi honetan ere beste ebaluazioen bat aurreikustea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako VII. Plangintzaldiko gidalerroek Bikain ebaluazio prozesu berrian parte hartzeko gonbita egiten dute.
- Euskararen ezagutza-mailari dagokionez, 2018ko ekainaren 21ean OSATEKeko Administrazio Kontseiluak onartutako Akordioaren bidez lanpostu guztiei B2 maila ezarri zien, eta lanpostu jakin batzuei, beren izaeraren eta kokapen geografikoaren arabera, derrigortasun-datak esleitzen dizkie. Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren arabera, berriz, hizkuntza-eskakizunak lanpostu bakoitzari esleitutako komunikazio-ezaugarrien eta - beharren arabera eta lanpostuaren eginkizunak eta zereginak betetzeko eskatzen diren hizkuntza-trebetasunen arabera esleitu dira. Hortaz, egokia litzateke OSATEKek beharrezko komunikazio- eta funtzio-analisia egingo balu, ahozko zein idatzizko komunikazio-lanak eta -harremanak kontuan hartuta, orain modu uniformearen esleituta dauzkan hizkuntza-eskakizunak egokitze premiarik dagoen jakiteko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
*Herri Administrazioetan Hizkuntza  
Normalizatzeko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA**  
Viceconsejería de Política Lingüística  
*Dirección de Normalización Lingüística de  
las Administraciones Públicas*

- Halaber, Dekretu berriaren arabera, lanpostu-zerrendetan bereizita jaso daitezke, batetik, lanpostu bakoitzari esleitutako idazmena eta irakurmena trebetasunak, eta, bestetik, mintzamena eta entzumena trebetasunak. Beraz, nahi izatera eta beharrezko ikusiz gero, aukera hori ere baliatu dezake.
- Langile askok ez dute oraindik euskara-maila nahikorik euskarazko zerbitzua eskaintzeko, eta ezin da euskarazko zerbitzu osoa bermatu zentro eta txanda guztietan. Hain zuzen ere, 2023ko urtarrileko datuen arabera, OSATEKeko langileen %46k ez du inolako euskara mailarik egiaztatu. Gainera, euskarazko prestakuntza planek ez dute esperotako emaitzak eman. Ondorioz, komeniko litzateke prestakuntza plana sendotzea eta neurri egokiak hartzea langileen euskarazko ezagutza orokorra areagotzeko, euskara ere zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin.

Hori guztia esanda, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak benetan eskertzen du OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko egiten ari diren ahalegina, eta guri planaren gaineko iritzia eskatu izana. Gure aholkuak kontuan hartzea ere eskertuko genuke, ahal dela.

Hori guztia kontuan hartuta, HPSk begi onez ikusten du OSATEKek egin duen Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa 2023-2027.

Adeitasunez, agurtzen zaituztet.

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria

## **OSATEK-EKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKORDIOA, LANPOSTU JAKIN BATZUEI DERRIGORTASUN-DATA BERRIAK ESLEITZEN DIZKIENA, LANPOSTU HORIEN IZAERAREN, KOKAPEN GEOGRAFIKOAREN, EUSKARA-MAILAREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA**

### **ERREFERENTZIA-ESPARRUA**

Hemen zehazten den akordioak honako dokumentu hauek ditu arau-erreferentzia gisa:

- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskadiko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 100/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuena.
- OSATEKeko Administrazio Kontseiluak 2018ko ekainaren 21ean onartutako akordioa, lanpostu guztiei euskararen B2 maila eta lanpostu jakin batzuei derrigortasun-data esleitzen diena, haien izaeraren eta kokapen geografikoaren arabera.
- OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1. Plana (2018-2022).
- Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 3. Plana (2022-2028).

### **AKORDIOAREN TESTUINGURUA**

86/1997 Dekretuak, laugarren xedapen gehigarrian, ezartzen du zerbitzu publikoak ematen dituzten erakunde publikoek euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko dutela herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzuetan. Horretarako, erakunde publiko horiek, dekretu horretan ezarritako irizpideen arabera, ezarri beharreko helburuak aztertuko dituzte, eta, beren administrazio-kontseiluen bidez, helburu horiek benetan betetzeko behar diren neurriak hartuko dituzte.

Era berean, dekretu horren lehenengo xedapen gehigarriak zehazten du, osasun-arloaren izaera eta berezitasunak kontuan hartuta, berariazko arauak eratuko direla hizkuntza-normalizazioko prozesua gauzatzeko.

Goian aipatutako lehen xedapen gehigarriaren arabera, Osakidetzak, 67/2003 Dekretuaren bidez, bere Normalizazio Plana arautuko zuten oinarriak ezarri zituen. Osatek sozietate publikoak bere gain hartu zuen dekretu horren edukia, Osakidetzako zerbitzu-erakunde gisa (100/2018 Dekretua, uztailaren 3koa).

Horregatik, eta OSATEKen Lehen Euskara Plana (2018-2022) onartzeko abiapuntu gisa, OSATEKen Administrazio Kontseiluak, 2018ko ekainaren 21ean, erabaki zuen lanpostu guztiei euskararen B2 ezagutzamaile esleitzea.

Derrigortasun-datei dagokienez, 2018ko Akordioaren bidez, 59 lanposturi esleitu zitzairen 2022ko abenduaren 31ko derrigortasun-data, Osakidetzaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren irizpideei jarraituz: lanpostuaren izaera (herritarrekiko harremanak, erakundeko langileak, administrazioak eta gainerako erakundeak), lanpostuaren kokapen geografikoa (zentroaren datu soziolinguistikoak), egiaztatutako euskaramaila eta lanpostuak betetzen dituzten pertsonen antzintasuna.

Azkenik, 2018ko Akordioaren bidez, 212 pertsona salbuetsita geratu ziren, zeukaten lan-kategorian, beren lanpostuei ezarritako B2 maila lortzetik finkatutako derrigortasun-dataren muga-egunean.

## ALDEZ AURREKO GAIAK

**Lehenengoa.-** Akordio hau idazteko, kontuan hartu dira OSATEKeko langileek eta Euskara Lantaldeak 2. Euskara Planari egindako proposamenak, bai eta Enpresa Batzordearen proposamenak ere. Horietaz gain, kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik jasotako txostena, 2. Euskara Planaren alde egiten duena.

**Bigarrena.** – Derrigortasun-data berriak esleituta izango dituzten lanpostuak hautatu dira, bi irizpideren arabera: lanpostuaren izaera eta haren zona soziolinguistikoa, Osakidetzako hirugarren Euskara Plana erreferentziatzat hartuta.

Hala:

- Lanpostuaren izaera. Kategoria bakoitzeko lanpostuen ezaugarriak eta funtzioak hartu dira kontuan, eta baliokidetzat egin da Osakidetzako zerbitzuen eta OSATEKeko lanbide-kategorien artean (ikus 1. eranskina).
- Lanpostuaren zona soziolinguistikoa. OSATEKek 4 eremu soziolinguistikotan dituen lantokiak ezaugarritu dira, kontuan hartuta Osakidetzako ESla, horietako bakoitza, eta pazienteak zein eremutatik joaten diren. OSATEKEN zentro bakoitza zona soziolinguistikoko batean dago esleituta (ikus 2. eranskina).

**Hirugarrena.-** Aurreko bi irizpideak (lanpostuaren izaera eta kokapen geografikoa) konbinatuz, eta Osakidetzak bere Hirugarren Euskara Planean erabilitako sistema ezarritik, OSATEKeko lanpostuak bi lehentasun-mailatan sailkatu dira (1 edo 2) eta derrigortasun-daten gutxieneko ehuneko bat ezarri da. Horrela, herritarrekin harreman handiena duten asistentzia-lanpostuek (idazkariak) eta langileekin harreman handiena duten egiturako lanpostu estrategikoek (Zuzendaritzako eta Giza Baliabideetako Idazkaritza) 1. lehentasun-maila hartzen dute; gainerako lanpostuek, berriz, 2. lehentasun-maila hartzen dute (3. eranskina).

Aurreko gaiak kontuan hartuta, Administrazio Kontseilu honek honako erabaki hauek hartu ditu:

## AKORDIOAK

**Lehenena.-** Administrazio Kontseiluaren 2018ko ekainaren 21eko Akordioan jasotako plaza guztietarako B2 mailari eustea eta erabaki horren ondoren sortutako egiturazko plaza guztietarako B2 maila ezartzea.

**Bigarrena.-** Aipatutako alderdiak kontuan hartuta, derrigortasun-datak dituzten lanpostuen portzentajeen eta kopuruaren taula hau onartzea (ikus 4. eranskina, zentrokako datuei dagokienez):

Osatek lan-kategoria	Gutxieneko % derrigortasun datarekin	Lanpostu kopurua, guztira	Lehenengo Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zaien lanpostuen kopurua	Derrigortasun-data berriak dituzten lanpostuen kopurua	Derrigortasun-data duten lanpostuen %, guztira
Idazkariak	100%	45	14	+31	45 (100%)
Laguntzaileak	40% - 60%	48	15	+14	29 (63%)
Teknikari manipulatzaileak	40% - 60%	51	14	+18	32 (66%)
Erradiologoak	40% - 60%	60	10	+24	34 (57%)
Egitura (Bizkaia plaza)	40% - 100%	22	6	+14	20 (91%)
<b>GUZTIRA</b>	<b>%53 (3)</b>	<b>226</b>	<b>59</b>	<b>+101</b>	<b>160 (71%)</b>

**Hirugarrena.-** B2 mailaren derrigortasun-data 2025/12/31 ezartzea, Idazkaritza eta Laguntzaile estamentuetako lanpostuetarako (5. eranskina).

**Laugarrena.-** B2 mailaren derrigortasun-data 2027/12/31 ezartzea Teknikari Manipulatzailer, Erradiologo eta Egiturako Langileen estamentuetako lanpostuetarako (5. eranskina).

**Bosgarrena.-** 86/1997 Dekretuak, 67/2003 Dekretuak eta OSATEK-en Administrazio Kontseiluaren 2018ko Akordioak onartutakoaren arabera, derrigortasun-datekin eta euskara-maila egiaztatzearekin lotutako puntu hauek indarrean mantentzea:

a) Proposamen honetan jasotako lanpostuen derrigortasun-datak esleitzeko, bi lehentasun-irizpide hauek aplikatu dira: ziurtatutako euskara-maila eta lanpostua antzinatean handienekotik betetzeko data.

b) Lanpostuaren derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostua eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da langileak B2 maila egiaztatuta izatea.

c) Aurreko b) puntuan adierazitako baldintza betetzetik salbuetsita daude 2018ko Akordioan agertzen diren langileak. Akordio horretan, langileen nortasuna eta profesional bakoitzaren kategoria jasotzen dira.

d) Aurreko c) puntuan jasotako salbuespenez gain, titular diren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunen derrigorrezkotasun-arabide orokorra betetzetik salbuetsita egongo dira titular diren lanpostuari derrigortasun-data ezartzen dion plangintzaldi bakoitzaren hasieran 45 urte baino gehiago dituzten pertsonak, betiere interesduna ados badago. Salbuetsita egongo dira, halaber, titular diren lanpostuari alde aurretik esleitutako hizkuntza-eskakizuna aldatzea onartzen bada, 45 urtetik gorako pertsonak, interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.

e) Kontratazio puntualak edo langile berriak prestatzeko egiten diren ordezkapen-politsetatik datozenak, bai ordezkapen bidez betetzeko (plaza hori betetzen duen enpleguaren gaixotasunagatik baja; lanpostu hori betetzen duen enpleguaren amatasun- edo aitatasun-lizentziagatik baja; ordaindu gabeko baimena; eszedentzia;...), bai ekoizpenaren inguruabar bereziengatik betetzeko, ezarritako derrigortasun-data igaro ondoren egingo dira, nahitaez, bete beharreko lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna behar bezala egiaztatuta duten langileekin.

f) Aurreko e) puntuan adierazitako hizkuntza-agindua partzialki edo guztiz baztertuko da ordezkapenen zerrendan lanposturako eskatzen den maila duen pertsonarik ez badago: kasu horretan, egiaztatutako B1 maila duten ordezkongana joko da. Bestela, egiaztatutako mailarik ez duen pertsona bat kontratatuko da. Prozedura hori behar bezala dokumentatuko da horretarako egindako aktan.

g) Lanpostu huts bat eskuratzeko deialdi publiko guztietan, eskainitako lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data bete beharko dira.

h) Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 20an, 2. Euskara Planean jasotako 226 lanpostuen hizkuntza-egoera onartu ondoren, dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-dataren ehunekoak aplikatuko zaizkie une horretatik aurrera sortzen diren lanpostu guztiei. Derrigortasun-datarik ezartzen ez zaien lanpostuen kasuan, euskara jakitea meritutzat hartuko da, indarrean dagoen legeriak adierazten duen bezala.

i) OSATEK-en Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-maila eta derrigortasun-data, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari kontsulta egin ondoren.

j) B2 mailari dagokion euskara-ezagutza 187/2017 Dekretuan zehaztutako titulu edo ziurtagiriren baten bidez egiaztatuko da (2017ko uztailaren 20ko EHAA, 138. zk.).

k) OSATEKeko langileek orain arte ez badute egiaztatu betetzen duten lanpostuari dagokion euskara-maila, eskubidea izango dute, lehentasunak eta aurrekontuak kontuan hartuta, behar den hizkuntza-prestakuntza jasotzeko, hala badagokio, lanpostuari esleitutako maila egiaztatu ahal izan dezaten. Prestakuntza hori aurreikusita eta lehenetsita dago indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko planean.

**Seigarrena.** – Akordio hau OSATEK-en iragarki-oholetan argitaratzea.

Bilbon, 2024ko martxoaren 20an

Sin.: José Luis Quintas Díez

OSATEKeko Administrazio Kontseiluko presidentea

### 1. ERANSKINA

#### Osakidetzako eta OSATEkeko kategorien arteko korrelazio konparatiboa, derrigortasun-datak ezartzeko

Osakidetzako Zerbitzua	Osatek lan-kategoria
Lehen mailako arreta – Harrera-, onarpen- eta informazio-zerbitzuak	Idazkariak
Ospitale-arreta – Laguntza-zeladoreak	Laguntzaileak
Ospitaleko arreta – Erradiologia	Teknikari manipulatzaileak Erradiologoak
Osasun-antolamendua, administrazioa eta zerbitzu orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zuzendaritza-idazkaritzak</li> <li>○ Pertsonal-sailak</li> <li>○ Kudeaketa ekonomikoko zerbitzuak</li> <li>○ Kalitatea</li> <li>○ Informatika</li> <li>○ Planten/Zerbitzuen Administrazioa</li> <li>○ Gainerako administrazio-zerbitzuak</li> </ul>	Egitura (Bizkaia plaza): <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zuzendaritzako idazkaria</li> <li>○ Giza baliabideak</li> <li>○ Ekonomiko-finantzarioa</li> <li>○ Kalitatea eta kudeaketa</li> <li>○ Teknologia/Informazio-sistemak</li> <li>○ Asistentzia-arloa</li> <li>○ Hizkuntza-normalizazioa/l+G+b</li> </ul>

### 2. ERANSKINA

#### OSATEken zentroak zona soziolinguistiko desberdinetan kokatzea

Osakidetzako zona soziolinguistikoa	Herritar euskaldunen ehunekoa	Osatek zentroa
<b>A zona</b>	%70etik gorakoa	Zentririk gabe
<b>B zona</b>	%40 eta %70 artean	Donostia/Zumarraga/Eibar Galdakao/Urduiz/Bizkaia Plaza Osatek txandakatzailak Gipuzkoako errotatorioak
<b>C zona</b>	%20 eta %40 artean	Vitoria-Gasteiz Deusto/Areilza Bizkaiko errotatorioak
<b>D zona</b>	%20tik behera	Zentririk gabe

### 3. ERANSKINA

#### Derrigortasun-daten gutxienerako %, lehenetasun-mailaren eta kategorien arabera

Osatek arloak	Zonalde soziolinguistikoa							
	A >70%		B 45%-70%		C 20%-45%		D <%20	
	Lehenetasuna	HE (%)	Lehenetasuna	HE (%)	Lehenetasuna	HE (%)	Lehenetasuna	HE (%)
Idazkariak	-	-	1	100	1	100	-	-
Laguntzaileak	-	-	2	60	2	40	-	-
Tekn. manipulatzaileak Erradiologoak	-	-	2	60	2	40	-	-
Egitura (Bizkaia Plaza):								
Zuzendaritza Idazkar.	-	-	1	100	-	-	-	-
GB	-	-	1	80	-	-	-	-
Ekonomiko Finantzarioa	-	-	2	60	-	-	-	-
Teknolo. eta Informaz. sistemak	-	-	2	60	-	-	-	-
Arlo asistentziala	-	-	2	60	-	-	-	-
I+G+b	-	-	2	60	-	-	-	-

#### 4. ERANSKINA

#### Derrigortasun-data duten lanpostuen % eta kopurua

Osatek lan-kategoria	Zentroa	Zenbat lanpostuk izan behar duten, gutxienez, derrigortasun-data.	Lanpostu kopurua guztira	Lehen Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zitzaizen lanpostuak	Bigarren Euskara Planean derrigortasun-datak ezartzen zaizkien lanpostu berriak	Lanpostuetako derrigortasun-datak guztira
Idazkariak	Guztiak (10 txandakakoak barne)	%100	45	14 (%31)	+ 31 (+69%)	45 (%100)

Laguntzaileak	Donostia	%60	8	5 (%62)	0	5 (%62)	
	Zumarraga		2	2 (%100)	0	2 (%100)	
	Eibar		2	2 (%100)	0	2 (%100)	
	Galdakao		6	3 (%50)	+ 1 (+17%)	4 (%67)	
	Urduliz	%40	4	0 (%0)	+ 3 (+75%)	3 (%75)	
	Gasteiz		10	2 (%20)	+ 2 (+20%)	4 (%40)	
	Deustu		4	1 (%25)	+ 1 (+25%)	2 (%50)	
	Areitza		2	0 (%0)	+ 1 (+50%)	1 (%50)	
	Osatek txandakatzaileak		%60	8	0 (%0)	+ 5 (+62%)	5 (%62)
	Bizkaiko errotatorioak		%40	2	0 (%0)	+ 1 (+50%)	1 (%50)
<b>LAGUNTZAILEAK GUZTIRA</b>			<b>48</b>	<b>15 (%31)</b>	<b>+ 14 (+29%)</b>	<b>29 (%60)</b>	

Osatek lan-kategoria	Zentroa	Zenbat lanpostuk izan behar duten, gutxienez, derrigortasun-data.	Lanpostu kopurua guztira	Lehen Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zitzaizen lanpostuak	Bigarren Euskara Planean derrigortasun-data ezartzen zaizkien lanpostu berriak	Lanpostuetako derrigortasun-data guztira
Teknikari manipulatzaileak	Donostia	%60	9	4 (%44)	+ 2 (+22%)	6 (%66)
	Zumarraga		2	2 (%100)	0	2 (%100)
	Eibar		2	1 (%50)	+ 1 (+50%)	2 (%100)
	Galdakao		6	3 (%50)	+ 1 (+17%)	4 (%67)
	Urduliz		4	1 (%25)	+ 2 (+50%)	3 (%75)
	Gasteiz	%40	10	2 (%20)	+ 2 (+20%)	4 (%40)
	Deustu		4	0 (%)	+ 2 (+50%)	2 (%50)
	Areiltza		2	1 (%50)	0	1 (%50)
	Osatek txandakatzaileak		6	0 (%)	+ 4 (+67%)	4 (%67)
	Bizkaiko errotatorioak	%40	4	0 (%)	+ 2 (+50%)	2 (%50)
	Gipuzkoako errotatorioak	%60	2	0 (%)	+ 2 (+100%)	2 (%100)
<b>TEKNIKARIAK GUZTIRA</b>			<b>51</b>	<b>14 (%27)</b>	<b>+ 18 (+35%)</b>	<b>32 (%62)</b>

Osatek lan-kategoria	Zentroa	Zenbat lanpostuk izan behar duten, gutxienez, derrigortasun-data.	Lanpostu kopurua guztira	Lehen Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zitzaizen lanpostuak	Bigarren Euskara Planean derrigortasun-datak ezartzen zaizkien lanpostu berriak	Lanpostuetako derrigortasun-datak guztira
Erradiologoak	Donostia	%60	13	4 (%31)	+ 4 (+31%)	8 (%62)
	Zumarraga		3	0 (%0)	+ 2 (+67%)	2 (%67)
	Eibar		3	0 (%0)	+ 2 (+67%)	2 (%67)
	Galdakao		9	4 (%44)	+ 2 (+22%)	6 (%66)
	Urduliz		6	1 (%17)	+ 3 (+50%)	4 (%67)
	Gasteiz	%40	16	0 (%0)	+ 7 (+44%)	7 (%44)
	Deustu		6	1 (%17)	+ 2 (+33%)	3 (%50)
	Areiltza		4	0 (%0)	+ 2 (+50%)	2 (%50)
<b>ERRADIOLOGOAK GUZTIRA</b>			<b>60</b>	<b>10 (%17)</b>	<b>+ 24 (+40%)</b>	<b>34 (%57)</b>

Osatek lan-kategoria	Zentroa	Zenbat lanpostuk izan behar duten, gutxienez, derrigortasun-data.	Lanpostu kopurua guztira	Lehen Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zitzairen lanpostuak	Bigarren Euskara Planean derrigortasun-datak ezartzen zaizkien lanpostu berriak	Lanpostuetako derrigortasun-datak guztira
Zuzendaritzako idazkaria	Bizkaia plaza	%100	1	1 (%100)	0	1 (%100)
Giza Baliabideen arduraduna	Bizkaia plaza	%80	1	1 (%100)	0	1 (%100)
Antolaketako teknikaria	Bizkaia plaza	%80	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Administraria	Bizkaia plaza	%80	1	1 (%100)	0	1 (%100)
Nomina eta Gizarte Segurantzako teknikaria	Bizkaia plaza	%80	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Langileen Administrazio burua	Bizkaia plaza	%80	1	1 (%100)	0	1 (%100)
Zuzendaritza ekonomikoa	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Administrazio eta Finantzetako burua	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Arduradun ekonomiko-finantzarioa	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Zerbitzu Orokorretako burua	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Administraria	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Administrazioko ofiziala	Bizkaia plaza	%60	2	1 (%50)	+1 (+50%)	2 (%100)
Administrari laguntzailea	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Kalitate eta Kudeaketako arduraduna	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Kalitate eta kudeaketako teknikaria	Bizkaia plaza	%60	1	1 (%100)	0	1 (%100)
Sistema informatikoen arduraduna	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Informatikako teknikaria	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
Asistentzia-arloa	Bizkaia plaza	%60	1	0 (%0)	+1 (+100%)	1 (%100)
I+G+b	Bizkaia plaza	%40	2	0 (%0)	+1 (+50%)	1 (%50)
Hizkuntza-normalizazioko teknikaria (2)	Bizkaia plaza	-	1	-	-	-
<b>EGITURA GUZTIRA</b>			<b>22</b>	<b>6 (%28)</b>	<b>+ 14 (+63%)</b>	<b>20 (%91)</b>

(1) Lanpostu hori ez da zenbatzen derrigortasun-datak ezartzeko orduan, 86/1987 Dekretuaren 14. artikularen arabera. Lanpostu horrek C2 eskakizuna eta a berehalako derrigortasuna ditu.

## 5. ERANSKINA

OSATEKeko lanpostuak (101), derrigortasun-data berriak ezarrita dituztenak

2025/12/31

Kodea	Ezaugarriak
AS3	Idazkaria
AS4	Idazkaria
AS5	Idazkaria
AS6	Idazkaria
AS7	Idazkaria
AS8	Idazkaria
AS9	Idazkaria
AS10	Idazkaria
BS4	Idazkaria
BS5	Idazkaria
BS6	Idazkaria
BS7	Idazkaria
BS9	Idazkaria
OS11	Idazkaria
OS12	Idazkaria
OS13	Idazkaria
GS4	Idazkaria
GS5	Idazkaria
GS6	Idazkaria
GS7	Idazkaria
GS8	Idazkaria
GS13	Idazkaria
OS1	Idazkaria
OS2	Idazkaria
OS3	Idazkaria
OS4	Idazkaria
OS5	Idazkaria
OS6	Idazkaria
OS7	Idazkaria
OS8	Idazkaria
OS9	Idazkaria

BA10	Laguntzailea
BA11	Laguntzailea
BA12	Laguntzailea
BA13	Laguntzailea
AA6	Laguntzailea
AA9	Laguntzailea
BA5	Laguntzailea
BA16	Laguntzailea
BA17	Laguntzailea
OA1	Laguntzailea
OA2	Laguntzailea
OA3	Laguntzailea
OA4	Laguntzailea
OA5	Laguntzailea

**2027/12/31**

Kodea	Ezaugarriak
GTM5	Teknikaria
GTM9	Teknikaria
GTM13	Teknikaria
BTM9	Teknikaria
BTM10	Teknikaria
BTM13	Teknikaria
BTM14	Teknikaria
BTM15	Teknikaria
BTM18	Teknikaria
BTM20	Teknikaria
ATM3	Teknikaria
ATM4	Teknikaria
OTM1	Teknikaria
OTM2	Teknikaria
OTM3	Teknikaria
OTM4	Teknikaria
GTM14	Teknikaria
GTM15	Teknikaria
GR5	Erradiologoa
GR6	Erradiologoa
GR7	Erradiologoa
GR8	Erradiologoa
GR14	Erradiologoa
GR16	Erradiologoa
GR17	Erradiologoa
GR18	Erradiologoa
BR4	Erradiologoa
BR5	Erradiologoa
BR7	Erradiologoa
BR9	Erradiologoa
BR15	Erradiologoa
BR17	Erradiologoa
BR20	Erradiologoa
BR21	Erradiologoa
BR22	Erradiologoa
AR1	Erradiologoa
AR2	Erradiologoa
AR3	Erradiologoa
AR4	Erradiologoa
AR6	Erradiologoa
AR7	Erradiologoa
AR10	Erradiologoa

Kodea	Ezaugarriak
ETO	Antolaketako teknikaria
ETN1	Nomina eta Gizarte Segurantzako teknikaria
EDE	Zuzendaritza ekonomikoa
EJAF	Administrazio eta Finantzetako burua
EREF	Ekonomia- eta finantza-arduraduna
ETJSG	Zerbitzu Orokorretako burua
EA1	Administraria
EOA2	Administrazioko ofiziala
EAA	Administrari laguntzailea
ERC	Kalitate eta Kudeaketako arduraduna
ERSI	Sistema informatikoen arduraduna
ETI	Informatikako teknikaria
EDA	Asistentzia-eremua
EID1	I+G+b